



**Arartekoaren 2023R-1563-23 Ebazpena, 2023ko urriaren 26koa. Honen bidez, Bilboko Udalari gomendatzen zaio ondorioz gabe utz dezala trafikoko araudia urratzeagatik jarritako zehapen bat.**

### Aurrekariak

1. Arartekoak izapidetzeko onartu zuen herritar batek jarritako kexa, zeinaren bidez adierazi baitzuen ez zegoela ados Bilboko Udalak bere alaba adingabeari (ibilgailuaren titularra) jarritako zehapenarekin, trafikoko arau-hauste baten egilea ez identifikatzeagatik.

Idazkian, kexagileak adierazi zuen adingabearen aitak lau ibilgailu jarri zituela alabaren izenean adingabearen zaintza partekatua zuten garaian, baina ez zuen hori jakiteko edota baimentzeko aukerarik izan. Horren ondorioz, zehatzeko zenbait prozedura hasi dira adingabearen aurka, antza, aitak ibilgailuekin egin dituen arau-hausteengatik eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga zenbaitetan ez ordaintzeagatik.

2. Aurrez azaldutako egitateak ikusita, Arartekoak lankidetzeta-eskaera bidali zion Bilboko Udalari, eta txosten bat bidaltzeko eskatu zion, alegazioak ezesteko eta proba ukatzeko formula estandarizatuak erabiltzeko arrazoiak justifika zitzaizkien. Halaber, gogorarazi zuen zehatutakoa adingabea zela eta gurasoek erantzukizun solidarioa dutela, eta horrek jakinarazpenetarako eraginak dituela; izan ere, jakinarazpena aspalditik bizi ez zen helbide batean egin zen.

Azkenik, Bilboko Udalari eskatu zion zehatzeko prozeduren administrazio-espeditenteen kopia ere bidal diezaiola.

3. Erakunde honek egindako informazio-eskaerari emandako erantzunean Bilboko Udalak zera adierazi zion Arartekoari:

*“De acuerdo con los datos contenidos en la base de datos de la Dirección General de Tráfico, la titularidad del vehículo con matrícula xxxxx se atribuye a la menor de edad, Dña.xxxx, con DNI xxxx. Dicho vehículo carece de anotación referida a su conductor habitual. Además, los datos referidos a la tutoría legal de la menor, según la información extraída de la DGT únicamente refieren a D.xxxxx.*

*(...)*

*De modo y manera que en el caso que nos ocupa, al tratarse de una infracción de circulación (la que trajo causa de la denuncia 2022/xxxxx), consistente en un exceso de velocidad, y al no ser posible la detención del vehículo por ser denunciada la conducta infractora a través de un medio de captación, el titular del vehículo debe, en todo caso, y por imperativo legal, realizar la identificación del conductor responsable de la infracción en el plazo*





*de 20 días desde la notificación del acuerdo de incoación del procedimiento sancionador.*

*La incoación del procedimiento sancionador se dirigió a la dirección que consta en la base de datos de la DGT a efectos de notificaciones, según la titularidad del vehículo y los datos asociados a la misma, dando como resultado ausente en sus dos intentos de entrega. Posteriormente, dicho acto administrativo, fue publicado en el Boletín Oficial del Estado, tal y como lo preceptúa la Ley de Procedimiento Administrativo Común para el caso de notificaciones infructuosas.*

*Transcurrido el plazo de 20 días sin que la titularidad del vehículo hubiera procedido a identificar al conductor responsable de la infracción imputada, el órgano sancionador acordó incoar un procedimiento sancionador por la comisión de una infracción muy grave tipificada en el artículo 77.j) de la Ley de Seguridad Vial.*

*Es decir, en lo que a la tramitación del procedimiento sancionador se refiere, esta Administración considera haber actuado conforme a Derecho.*

*Por otro lado, y en contestación a las consideraciones que el Excmo. Ararteko realiza, y en concreto, en cuanto a la referencia que el artículo 82.b) del RDL 6/2015 realiza respecto de los procedimientos incoados a menores de edad, y la necesaria notificación a quienes ejerzan la tutoría legal de los mismos, resulta menester señalar que debido a la mecanización de la tramitación de los procedimientos sancionadores, no hubo manera de identificar que la titularidad asociada a la matrícula infractora según la información contenida en la DGT correspondía a una menor de edad. Entiende esta administración, y así se lo ha transmitido formalmente a la Jefatura Provincial de Tráfico de Bizkaia, que este vacío normativo podría haberse evitado si la notificación se hubiera dirigido, en todo caso, a la persona designada como conductora habitual a la hora de asignar la titularidad de un vehículo en favor de una menor de edad. De acuerdo con lo que nos transmitió en su día la Jefatura Provincial de Tráfico de Bizkaia, para proceder a la inscripción de un conductor habitual en el Registro de Vehículos, la persona física que haya sido designada deberá haberlo consentido de modo fehaciente (Anexo I y art. 2 Orden INT/3215/2010, de 3 de diciembre, por la que se regula la comunicación del conductor habitual y del arrendatario a largo plazo al Registro de Vehículos), circunstancia que no debió concurrir en el presente caso.*

*A mayor abundamiento, insiste esta Administración que el RDL 6/2015 contempla un plazo de 20 días para efectuar alegaciones, realizar el pago de las sanciones propuestas o realizar la identificación de la persona conductora. Y este plazo debe ser en todo caso atendido. Es por ello, por lo que, sin*





*perjuicio de que la madre de la titular del vehículo, Dña. Xxxxxx hubiera identificado al conductor responsable de la infracción que a su hija se le imputa tan pronto como conoció la existencia de los referidos procedimientos sancionadores, no se hubiera podido efectuar la referida identificación de conductor, por resultar ésta extemporánea.*

*El problema que aquí radica es el domicilio al que se dirigieron las notificaciones, que en puridad es el que consta asociado al vehículo infractor en la DGT. De manera que si el domicilio asociado a la titularidad del vehículo en Tráfico, hubiera sido el de la progenitora que ejerce la tutoría legal de la menor, esta no hubiera tenido impedimento para cumplir con la obligación de identificar al conductor responsable de la infracción, y además se hubiera cumplido con la referencia que la letra b) del artículo 82 de la Ley de Seguridad Vial realiza para las notificaciones de procedimientos sancionadores dirigidos a menores de edad. Sin embargo, cuestiones como: que la progenitora no conste en la DGT como la tutora legal de la menor, que la menor no hubiera consentido ejercer la titularidad del vehículo puesto a su nombre (a través de un negocio jurídico de donación o transmisión entre particulares), o que el vehículo no disponga de conductor habitual mediante la correspondiente anotación en la DGT, son cuestiones que escapan del buen hacer y buena fe de esta Administración a la hora de tramitar el presente procedimiento sancionador.*

*No obstante, lo anterior, esta Administración, actuando en todo momento de buena fe y sin perder de vista la sensibilidad del caso que nos ocupa por estar implicados en el mismo menores de edad, llamó personal y telefónicamente a la madre de la menor, Dña. xxxxxx, para explicarle cuál era la situación y recomendarle otras vías para defender el patrimonio de su hija menor de edad. Asimismo, este Área de Seguridad Ciudadana, se puso inmediatamente en contacto, tal y como ya hemos señalado anteriormente, con la Jefatura Provincial de Tráfico de Bizkaia, para trasladarle la importancia del caso, a fin de que pudieran adoptar las medidas que dispusieran a su alcance.”*

4. Halaber, udalak zehapen-espedienteen kopia ere bidali zuen.

Zehapen-prozedurak hasteko erabakien jakinarazpenei dagokienez, aipatutako sailak bidalitako administrazio-espedienteen honako datu hauek egon ziren jasota:

- a) 2022ko uztailaren 29ko ebazpena, 2022ko uztailaren 23an izandako hasierako arau-hausteagatik zehapen-espedientea hastearena, adingabearen izenera jakinarazi zen Trafiko Zuzendaritza Nagusian jasota zegoen Bilboko helbidean (salaketa-zenbakia: 2022/xxxxx).





Posta-ziurtagiriaren arabera, jakinarazpena egiten saiatu ziren bi biderretan "ez zen bertan egon", abisua utzi zuten postontzian eta jakinarazpena ez zen bulegotik hartu. 2022ko azaroaren 21ean, iragarkia argitaratu zen BOEn.

- b) 2023ko otsailaren 3ko ebazpen bidez, erabaki zen zehapen-espeditentea hastea adingabearen aurka, honako arrazoi honengatik: *"Ibilgailu batekin arau-hauste bat egin denean, ibilgailu horretako titularrak edo errentariak benetan ez identifikatzea arau-hauste horren erantzulea den gidaria behar bezala eskatzen zaienean."* (salaketa-zenbakia: yyyyyy).

Ebazpena Bilboko helbide berera bidali zen 2023ko martxoaren 27an, eta, posta-ziurtagiriaren arabera, jatorrira itzuli zuten hartzailea "ezezaguna" zelako helbide horretan.

- c) Kexagileak adierazi duenaren arabera, dei bat jaso zuen 2022ko abenduan, udalaren garabiak ibilgailua eraman baitzuen, eta une horretan jakin zuen alaba ibilgailuaren titularra zela. Hori dela eta, 2023ko otsailaren 13an, alabaren izenean, udalera jo zuen informazioa eskatzeko alabaren izenean zeuden ibilgailuei buruz, bai eta udalarekin zituen zorren zerrenda bat eskatzeko ere.

Arreta eman zion udalaren funtzionarioak espeditentea hasteko 2023ko otsailaren 3ko ebazpenaren berri eman zion kexagileari; arau-haustea egin zuen gidaria benetan ez identifikatzeagatik hasi zen espeditente hori, hain zuzen.

2023ko martxoaren 17an, legezko tutore den aldetik, udalean idazkia aurkeztu zuen yyyyyy zenbakiko salaketa baliogabetu zezatela eskatzeko, ez baitzuten izan salaketa horren berri, 2021eko ekainean kexagilea eta alaba beste udalari batean erroldatu zirelako. Alegazioen idazkiarekin batera, (...) datako salaketa bat aurkeztu zuen, instrukzio-epaitegi batean adingabearen aitaren kontra jarritakoa, bai eta gurasoen eta seme-alaba adingabe erkideen arteko harremanak arautzeko hitzarmenari buruzko dokumentazioa eta adingabearen NANaren kopia ere.

Gainera, alegatu zuen ezen, udalak Trafiko Zuzendaritza Nagusiari helbide aldaketaren berri eman ziola errolda aldatu izanagatik, eta gaineratu zuen (...)n epaitegi batean salaketa jarri zuela aitaren jarduketara zela eta. Idazki horren bidez, udalari jakinarazi zion gidaria zein zen, bai eta bere helbidea ere.

- d) Udalak erabaki zuen aurkeztutako alegazioak ezestea eta zehatzeko ebazpena bidali zuen interesdunaren Gasteizko helbidera; alegazioetan





jasotako helbidera, hain zuzen. Ebazpenaren aurka berraztertzeke errekurtsua aurkeztu zuen, eta ezetsi zuten.

- e) Zehapen-prozeduren esparruan egindako alegazioak ikusita, instruktoreak, araubide juridikoaren azpiatalaren buruak, idazki bat bidali zion interesdunari 2023ko ekainaren 26an,. Horren bidez, zera baieztatu zen: *arau-hauste administratiboa ibilgailuaren historian tutore gisa agertzen denari dagokio, transferentzia onetsi zuen aldetik, hizpide dugun kasuan, adingabearen ordezkari gisa*. Bilboko Udalaren Herritarren Segurtasun Arlotik zera gomendatu zen, halaber: *Delituen Biktimei Laguntzeko Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzura jotzeko, aitaren jokabidea kaltegarria izan baitzen adingabearen ondarrerako eta etorkizunerako, berehala babesa eman ziezaioten*.
5. Hortaz, beharrezkoak diren egitate- eta zuzenbide-elementuak daudela uste denez, honako gogoeta hauek egiten ditu Arartekoak:

### Gogoetak

1. Ararteko erakundeak 2003ko ohiko txostenean [trafiko, zirkulazio, motordun ibilgailu eta bide-segurtasuneko zehapen-prozeduretako izapide-ereduari buruz egindako gomendio orokorrean](#) jada azaldu zuen kezkatuta zegoela trafiko, motordun ibilgailuen zirkulazioko eta bide-segurtasuneko zehapen-prozeduren izapidetzea alde zuzenetik zehaztutako ereduarekin egitearekin.

Aipatutako gomendio orokorrean, erakunde honek zehatz mehatz aztertu zuen gai hori, kontuan hartuta gai hori oso garrantzitsua dela Espainiako Konstituzioaren 24. artikuluan jasotako defentsarako eskubidearen ikuspegitik, eta azterketan hizpide izan zituen bere ustez garrantzitsuenak zirenak eta maiz gertatzen direnak izapidetzeak aurrez ezarritako ereduarekin egiten direnean. Zehazki, frogari eta zehapen-ebazpenari lotutako akats batzuk aipatzen zituen (ebazpenak interesdunak aurkeztutako alegazioen inguruan ateratako balorazio-ondorio orokorra adierazten duten aurrez zehaztutako formulei erantzuten die, baina ez ditu azaltzen zeintzuk diren ondorio hori oinarritzeko arrazoi zehatz eta espezifikoak).

Halaber, nabarmendu zuen egiaztatu zuenaren arabera, arrazoi orokorrak erabiltzearen administrazio praktika hori —interesdunek planteatutako gai zehatzei erantzuten ez dietenak— maiz egiten zela baita ere aurrez ezarritako ereduarekin egokitzen zitzaizkien zehapenen aurkako administrazio errekurtsuak ebaztean. Modu horretan, errekurtsuen ebazpenak zehapen prozedura eredu baten arabera izapidetzeagatik sortutako akatsak ez zuzentzeaz gain, akats berberak errepikatzen zituen.

Aurkeztutako dokumentazioaren arabera, udalak ezetsi egin zituen kexagileak 2023ko martxoaren 17an egindako alegazioak, planteatutako gai zehatzei



erantzunik eman gabe eta baloraziorik egin gabe. Besterik gabe, Trafiko, Motordun Ibilgailuen Zirkulazio eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintza Errege Dekretuaren (Trafikoaren legea) 11.1 a) artikulua edukia aipatu eta zera adierazi zuen: *“oinarrizko jakinarazpena egin zen legeak esaten duen modua. TZOk emandako helbidera bidali zen baina inor ez zegoen jakinarazpena emateko egin ziren bi saiakeretan. Hortaz, interesdunak berak jakinarazpena bulegoan hartzeko abisua utzi zitzaion postontzian.”*

Horrez gain, ez zuen beharrezkotzat jo frogaldia eta entzunaldia zabaltzea, nahiz eta interesdunak alegatu ibilgailuaren titularra adingabea zela, amak ez zuela ibilgailua erosteko baimenik eman eta ez zuela horren berri, eta beste udalerrri batean bizi zirela arau-haustea egin baino lehenagotik.

Bestalde, interesdunak berraztertzeko errekurtsua ere jarri zuen, baina berraztertzeko errekurtsua ezesteko ebazpenak errepikatu egiten du zehatzeko ebazpenean esandakoa, eta, berriz ere, ez dira baloratzen interesdunak egindako alegazioak eta aurkeztutako dokumentazioa.

Hori dela eta, Arartekoaren iritziz, nahitaezkoa da administrazio horri gogoraraztea legeko ezarpenen arabera administrazioak nahitaez argudiatu behar dituela egokiro zehapen-prozeduren interesdunek egiten dituzten alegazioen ukapenak, eta esanbidezko adierazpenak egin behar dituela horri dagokion prozeduran zein errekurtsuan sortzen diren kontu guztien gainean (urriaren 1eko 39/2015 Legearen 35., 88. eta 119. artikulua, eta Trafiko, ibilgailu motordunen zirkulazio eta bide-segurtasunari buruzko gaietako Zigor Prozeduraren Araudia onartzen duen otsailaren 25eko 320/1994 Errege Dekretuaren 15. artikulua).

Konstituzio Auzitegiak sarritan azpimarratu du administrazio-ebazpenak argudioz emateko betebeharrak duen garrantzia, besteak beste, urtarrilaren 13ko 7/1998 Epaian. Zera adierazi zen bertan: *“De poco serviría exigir que el expedienteado cuente con un trámite de alegaciones para su defensa, si no existe un correlativo deber de responderlas; o proclamar el derecho a la presunción de inocencia, si no se exige al órgano decisor exteriorizar la valoración de la prueba practicada y sus consecuencias incriminatorias”.*

Auzitegi Goreneko zigor arloko salak, 2008ko abenduaren 18ko epai batean, honako hau ere deklaratu zuen: *“El deber de motivación es sustancial en todo Estado de Derecho, y se impone por nuestra legislación administrativa y constitucional, y en el ámbito de la Unión Europea por el art. 41 de la Ley Orgánica 1/2008, de 30 de julio, por la que se autoriza la ratificación por España del Tratado de Lisboa, Carta de Derechos, que concede el derecho a todos los ciudadanos a una buena administración, que incluye, entre otros derechos la obligación que incumbe a la Administración de motivar sus decisiones. Es una constante, constatada con frecuencia desafortunadamente, que las autoridades*



*administrativas en asuntos de elevadas solicitudes utilizan modelos estandarizados, ausentes de cualquier motivación, tanto fáctica como jurídica, al caso sometido a su consideración, resolviendo, pues sin expresar el razonamiento que es debido. Ello puede dar lugar al delito de prevaricación administrativa cuando a la injusticia intrínseca de la resolución, se une la arbitrariedad de la misma, resultante de tan inmotivado proceder. Para ello es necesario naturalmente que la resolución contenga una decisión no tolerable bajo interpretación de punto alguno, o bien que tal injusticia sea, como tantas veces se ha dicho, grosera, esperpéntica o insólita.”*

Azken finean, zehapena ezartzearen oinarria aurretiaz frogatutako erruduntasunaren arrazoizko epaia izan behar da, eta administrazioak arau-haustearen egitateak eta salatuak horietan parte hartu izana frogatu eta arrazoitu behar ditu.

Gauzak horrela, zehapena egin duen administrazioak interesdunaren alegazioei ez erantzuteak, Arartekoaren iritziz, benetako babesgabetasuna sortu zion kexagileari; izan ere, nahiz eta zehapenaren arrazoi formala jakin, benetan ez zitzaion azaldu zein zen azken arrazoa. Hain zuzen ere, administrazioak kasu honetan egin duen bezala ebaztean, edukirik gabe uzten du administrazioak legezko agindua betez eman duen alegazio- eta errekurso-izapidea.

2. Zigorren pertsonaltasun-printzipioak administrazio-zehapenen kasuan berekin dakar nola arau-hauste batetik eratorritako erantzukizunak hala horien jakinarazpena ziurtasun osoz arau-haustea egin duenari eman behar zaizkiola.

Jakinarazpenaren harira, udalak adierazi du adingabearen zehapen-prozeduraren hasiera jakinarazi zela Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datu-basean jasotako helbidean, baina entregatzeko bi saiakeretan ez zen bertan egon; horrenbestez, geroago, BOEn argitaratzea erabaki zen.

Alabaina, azpimarratu behar da ezen, nahiz eta Correosek adierazi 2022ko irailaren 19an eta 21ean hartzailea bertan ez zegoela, egiatan, jasota utzi behar zuela helbide horretan ezezaguna zela, 2023ko martxoaren 27an egin zuen bezala, hain zuzen; izan ere, bizitegia Bilbotik Gasteizera aldatu zuen 2021eko ekainean.

Hori dela eta, eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren erregistroan jasota dagoelako adingabea dela eta bere izenean jardun zuen tutorea zein den, udalak aintzat hartu behar zuen Bilboko helbide berean jatorrizko arau-haustea egiteagatik zehapen-prozedura hastearen jakinarazpena egitean “ez zela egon”, eta, hizpide dugun kasuan, azkenean, “ezezaguna” zela jaso zuela Correos zerbitzuak.

Aurrekarietan jasota dagoen bezala, garabiak ibilgailua eramane zuela jakinarazteko deian ibilgailuaren berri izan ondoren kexagileari arreta eman zion funtzionarioak berak jakinarazi zion 2022ko otsailaren 3an espedientea hasteko emandako





ebazpena, ezin izan baitzen benetan identifikatu jatorrizko arau-haustea egin zuen gidaria.

Trafiko Legearen 105.3 artikulua araberaz: *“Administrazioak hogeita lau orduko epean jakinarazi behar dio titularrari ibilgailua bideetik kendu dela eta gordailuan utzi dela”*. Kasu honetan, administrazioak titularra lokalizatu egin zuen, eta, beraz, bazuen beste bitartekorik zehapen-espedienteen ebazpenetan gauza bera egiteko.

Jakina denez, jakinarazpena administrazio-egintzen eraginkortasunaren oinarri da, eta haren helburua da interesdunek egintzaren edukia jakin dezaten bermatzea eta, hala badagokio, interesdunek egoki iritzitako ekintza guztiak egin ditzatela.

Hain zuzen ere, arrazoi horregatik, funtsezko formalitateak jarraitu gabe egindako jakinarazpenak ez lirateke interesdunaren jakinaren gainean behar bezala jarriko, eta, beraz, defentsa-gabezia eragingo lukete.

Erakunde honen iritziz, udalak bazuen auzi-elementu nahikorik ondorioztatu ahal izateko helbidea, zeinera gidaria identifikatzeko errekerimendua bidali baitzuten, ez zela zuzena, eta, hortaz, beharrezkoa zela ahalegin handiagoa egitea beste helbide bat aurkitzeko jakinarazpena egin ahal izateko, eta, horrekin, ziurtatzeko ibilgailuaren titularrak eta berorren legezko ordezkariak gidaria identifikatzeko errekerimendu espezifikoa jaso egiten zutela.

Arartekoak hainbat ebazpenetan<sup>1</sup> eman du jakinarazpenetan bermeak eskatzeari buruzko iritzia.

Orduan ere azaldu zen ediktu-jakinarazpenak, benetako jakinarazpen izaera baino, lege-fikzio izaera duela. Jurisprudenziak etengabe azpimarratu du hori, eta nabarmendu du administrazioak jakinarazpenen arloko arauan ezarritako formalitateak bete eta bere esku dauden arrazoizko aukera guztiak agortu behar dituela, jakinarazpenaren hartzailearekin harremanetan jartzeko.

Hain zuzen ere, Konstituzio Auzitegiaren iritziz, ediktu bidezko jakinarazpena egitea azken erremedioa da, ordezkoa eta salbuespenezkoa, eta, hura erabiltzeko, alde zuzenetik, agortu egin behar dira jakinarazpenaren hartzailearekin harremanetan jartzeko eta, ahal dela, jakinarazitako egintza jasotzen duela ziurtatzeko modalitate egokiak, muturrera eramanda ohiko bideetatik pertsona hori non dagoen ikertzeko

---

<sup>1</sup> **Ararteko**. Beste batzuen artean: Arartekoaren 2014R-1276-14 Ebazpena, 2015eko irailaren 17koa. Horren bidez, Donostiako Udalarik gomendatzen zaio ibilgailu bat kentzeko egintza eta desegiteko baimena baliogabe ditzan, eta ofizioz has dezan ondare-erantzukizuneko prozedura, interesdunaren ibilgailua desegiteagatik kalte-ordaina ordaindu behar zaion erabakitzeke. Eta Arartekoaren ebazpen hauek: 2018R-2315-17 eta 2022R-979-22, 2022ko azaroaren 28koak eta 2023R-966-22, 2023ko ekainaren 27koa. Hauen bidez, Eusko Jaurlaritzaren Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari gomendatzen zaio ondorioz gabe utz dezala “Etxebide” Etxebizitza Babestuen Eskatzaileen Erregistroan emandako baja bat. Hemen eskuratu daitezke: [www.ararteko.eus](http://www.ararteko.eus)





izapideak. Halaber, jakinarazpena ediktu bidez egiteko erabakiak arrazoizko irizpideetan oinarritu behar du, eta ziur egon behar da, edo, gutxienez, uste sendoa izan behar da, alferrikakoa dela zitazioa egiteko ohiko baliabideak erabiltzea. Hortaz, administrazioari gutxienez eska dakizkiokeen eginbideen baitan sartzen da, ediktu-bidera jo aurretik, jakinarazpena beste erregistro publiko batzuetan ageri den helbidean egiten saiatzea.

Ez dago zalantzarik, beraz, ediktu bidezko argitalpena azken aukera izan behar dela, Administrazioak jakinarazpenen arloko formalitateak behar bezala bete dituzte eta helbidea ikertzeko eska daitezkeen gutxienerako eginbidea gauzatu duenean.

Zentzu horretan, Arartekoak azpimarratu nahi du Trafiko Legearen 83.1 artikulua honako hau xedatzen duela: *"Kapitulu honetan eta, ordezkotzat moduan, administrazio-prozedura erkideari buruzko araudian xedatutakoarekin bat etorriz bideratutako prozedura betez baino ezin da zehapenik ezarri lege honetan tipifikatutako arau-hausteengatik."*

Bestalde, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen lehenengo xedapen gehigarriak dio trafikoaren arloko zigor-prozedurak horren araudi espezifikoaren arabera izango direla, eta, modu osagarrian, goiko lege horretan jasotakoaren arabera.

Bada, hain zuzen, lege horren 41.4 artikulua gaitasuna ematen dio administrazioari Udal Erroldan jasota dauden interesdunaren helbideari buruzko datuak biltzeko, eta horretarako Estatistikako Institutu Nazionalaren datu-baseetan bilatzeko (toki-administrazioek bertara bidaltzen baitituzte datuok), azken batean ofiziotik prozedurak hasi ahal izateko.

Aurrez adierazi den bezala, Arartekoaren iritziz, Bilboko Udalak izapidea muturrera eramane behar zuen adingabearen benetako helbidea aurkitzeko, eta saiakera egin behar zuen jakinarazpena bere eskura zegoen beste helbideren batean egiteko, hala nola biztanleen erroldaren erregistroan jasotako helbidean (bajan eman zen Bilboko erroldan Gasteizko erroldan altan emateko), eta ediktu-jakinarazpenari buruzko konstituzio-jurisprudentzia aplikatu.

Are gehiago, adingabeak nekez zuen bere helbideari buruzko datuak Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren erregistroan eguneratzerik, eta are gutxiago kontuan hartuta ez zuela jakin ibilgailu baten titularra zenik.

Gainera, jakinarazpenaren harira, kasu honetan ezin da alde batera utzi Trafiko Legearen 82 b) artikulua edukia, zeinak hauxe baitio: *"Arau-haustearen egilea hemezortzi urtetik behar denean, ezarritako isunaren erantzule solidario izango dira harekin batera, hurrenez hurren, haren gurasoak, tutoreak, eta legezko edo egiteko zaintzaileak edo hartzaileak, adingabeei egotzitako administrazio arau-haustea prebenitzeko betebeharra ez betetzeagatik"*.





Kontuan izan behar da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 40.1 artikulua behartu egiten duela administrazio-ebazpenak eta -egintzak ematen dituen organoa ebazpen eta egintza horien eraginpean dauden eskubide eta interesak dituzten interesdunari jakinaraztera, hurrengo artikuluetan aurreikusitako moduan.

Hala, Arartekoak uste du adingabearen legeko ordezkariak, ibilgailuaren titularrak, interesatuak direla prozeduran, adingabeari ezarritako isunaren erantzule solidarioak direlako.

Horrez harira, nabarmentzekoa da instruktoreak interesdunari bidalitako txostena, zeinak hauxe baitio: *"la responsabilidad de la infracción administrativa debiera recaer sobre la persona que figure en el historial del vehículo como tutor, toda vez que suscribió la transferencia, en el caso que nos ocupa, en calidad de representante de la menor de edad"*.

Konstituzio Auzitegiak zera adierazi zuen uztailaren 2ko 157/2007 Epaian: *"los posibles defectos en la notificación o emplazamiento administrativo, cuando se trate, como en este supuesto acontece, de un acto administrativo sancionador, revisten relevancia constitucional desde la perspectiva del art. 24 CE (FJ 4)"*. Eta adierazi du beharrezkoa dela administrazioak interesdun guztiei dei egitea, baldin eta hori egingarria bada, administrazio-espeditetik ondorioztatzen diren edo dauden datuetatik abiatuta ezagutzen eta identifikatzen direlako.

Azken batean, Ararteko honen iritziz, salaketa, gidaria identifikatzeko errekerimendua eta ez betetzearen ondoriozko arau-haustea jakinarazi behar zitzaizkien adingabearen legeko ordezkariari, defendatzeko eskubidea baliatzeko aukera izan zezaten. Beraz, Trafiko Legearen 83. artikuluko prozedurazko bermea kontuan hartuta, horiek guztiak ez egiteak berekin dakar Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 47.1 artikuluan jasotako deuseztasun-arrazaia.

Udalak berak, erakunde honek egindako informazio-eskaerari erantzutean, zera baieztatu zuen: *"los datos referidos a la tutoría legal de la menor, según la información extraída de la DGT únicamente refieren a D. xxxx"*-adingabearen aita-, eta, beraz, aitaren datuak bazituzten. Amaren datuak ez izatea ez zen oztopo aitari zehapen-prozeduren ebazpenak jakinarazteko eta amaren helbidea aurkitzen saiatzeko.

Halaber, udalak hauxe adierazi du: *"debido a la mecanización de la tramitación de los procedimientos sancionadores, no hubo manera de identificar que la titularidad asociada a la matrícula infractora según la información contenida en la DGT correspondía a una menor de edad"*.





Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren ibilgailuen erregistroan jasota dago ibilgailuaren titularraren jaiotza-data, bai eta bere tutorea eta ordezkaria zein den ere. Adingabearen amak aurrerago eskuratu zuen dokumentazioaren arabera, ibilgailua saltzeagatik titulartasuna aldatzeko, Trafiko Zuzendaritza Nagusiak zera eskatu zuen: *"el libro de familia, autorización del padre y DNI de la compradora menor y del padre"*. Beraz, administrazioak beharrezko datuak eskura zituen jakiteko ibilgailuaren titularra adingabea zela, bai eta jakiteko ere haren ordezkaria eta gurasoak zeintzuk ziren.

Teknologia, eta, horrenbestez, izapidetzearen mekanizazioa, osagarria izan behar da zehapen-prozedurarako informazio erabilgarria erraz eta azkar eskuratzeko, baina ezin da inola ere izan benetan egiaztatu behar denaren ordezeko elementua, ez eta aitzakia ere administrazio horri eska dakioken prestutasunaz ez jarduteko, horrek babesgabetasun-egoera bat eragin baitu; izan ere, interesdunak beren burua defendatzeko eskubideaz gabetu dituzte zehapen-prozedura batean.

3. Arau-haustea egin zuen gidaria garaiz kanpo identifikatzearen harira, administrazioak txostenean adierazi duenari lotuta, zera adierazi behar da: formalki garaiz kanpokoa izan arren, materialki ez da halakoa, jarraian azalduko ditugun arrazoiengatik.

Trafiko Legearen 77 j) artikulua zehapena ezartzen du arau-haustea egin den ibilgailuaren titularrak edota errentariak arau-haustea egin duen gidaria benetan ez identifikatzeagatik, ezarritako epean horretarako behar bezalako errekerimendua egiten zaienean.

Eta lege horren 11.1 a) artikulua honako betebeharrak ezartzen dio ibilgailuaren titularrari: *"Arau-haustea egin den unean ibilgailuaren gidaria zein izan den jakinaraztea Administrazioari. Besteak beste, gidabaimenaren edo gidalizentziaren zenbakia jakinarazi beharko du, Trafiko Buruzagitza Nagusia organismo autonomoaren Gidarien eta Arau Hausleen Erregistroan identifikatu ahal izateko"*.

Konstituzio Auzitegiaren 154/1994 Epaiak, 3. oinarri juridikoan, adierazi zuen manu horrek ibilgailu baten titularrak administrazioarekin lankidetzan aritzeko betebeharrak ezartzen duela, aipatutako alderdi horretan soilik, betebeharrak hori jabeari datzekiolarik, eta horrek zenbait betebeharrak dakartzala berekin, etengabeko erabilgarritasunaren ondorio logikoa medio; besteak beste, ibilgailua une jakin batean maneiatzen duen pertsona zein den jakitea, ahal den neurrian, batez ere ibilgailua erabiltzeak pertsonen bizitzarako, osasunerako eta osotasunerako ekar dezakeen arriskuagatik. Hori horrela, ondorioztatu zuen norberaren ondasunen gaineko kontrolik eza zehatzen dela, eta erruzko egoera argia dela zaintzarik egin ez izanagatik. Horrek zalantzarik gabe ahalbidetzen du erantzukizuna transmititzea, eta berau, ondorioz, ezin izango da behar ez bezalakotzat edota objektibotzat jo.





Hizpide dugun kasuan, adingabeak ez zuen jakin ondasun horren titularra zenik, eta, hortaz, udalaren ibilgailu-gordetegitik deia jaso arte, ezin izan zituen gidatzen duenaren gaineko kontrol-ahalmenak egikaritu. Ondorioz, nekez baieztatu daiteke ibilgailua kontrolatzeko dituen ahalmenak alde batera utzi dituenik.

Gainera, Trafiko Legearen 77 j) artikulua ohiko jarrera identifikatzeko beharrezko betekizun gisa ezartzen du gidariari berariaz errekerimendua egitea arau-haustea egin duen gidaria benetan identifikatzeko.

Hain zuzen, Arartekoaren iritziz, kasu honetan, zehapen-prozeduraren baitan egindako jakinarazpenak ez ziren behar bezala gauzatu eta ez zituzten ondorio juridiko osoak izan; beraz, zehatzeko baliatutako tipikotasuna eta zuzenbidearen aurkakotasuna desagertuko lirateke. Hori horrela, identifikatzeko errekerimenduaren berri ez izateak garrantzia du identifikazioa garaiz kanpo egitearen garrantzia baloratzeko orduan, errekerimendua epearen barruan ez betetzeko arrazoizko kausa bat justifikatu eta argudiatu baitzen.

Era berean, Arartekoaren ustez, balorazio espezifikoa merezi du trafikoaren arloko arau-haustearen berri izan zuenean gidaria berehala identifikatu izanak. Hori dela eta, zehapen-ebazpenak bete gabekotzat jotzen duen laguntzeko betebeharra bete zuen, eta ez luke erantzun behar, errekerimendua egiaztatu ez den informazio bat ez jakinarazteagatik. Gainera, gidaria ez identifikatzeagatik zehatzeko ebazpena eman aurretik egin zuen.

Laburbilduz, ez dira behar bezala egiaztatu jokabidearen tipikotasuna eta gidaria benetan identifikatzeko betebeharra ez betetzeko borondatea, hau da, Trafiko Legearen 11. artikulua exijitzen duen arau-haustearen doloa edo errua (erruduntasun-printzipioa).

Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

## **GOMENDIOA**

Azaldutakoaren arabera, Bilboko Udalak ondorioz gabe utz dezala kexagileari jarri zion zehapena, eta, hala badagokio, zehazpen hori betetzeko ordaindutako zenbatekoa itzultzeko erabaki dezala, hargatik eragotzi gabe antzemandako arau-hauste administratiboaren harira etorkizunean egin litezkeen jarduketak.

